

I. ARGAZKI-LEHIAKETA

BALMASEDAKO ERDI AROKO AZOKA 2008.-

OINARRIAK

PARTE HARTZAILEAK

Edozein profesionalak edo zalek har dezake parte.

GAIA

Balmasedako Erdi Aroko X. Azoka 2008.

Parte hartzaile bakoitzak 6 argazkik osatutako bilduma bat aurkeztuko du.

PROZEDURA

Koloreko argazkiak izango dira eta euskarri digitalean aurkeztu beharko dira, baita paperean ere. Gehienezko neurria 30 X 40 cm-koa izango da eta gutxienezko neurria librea da. Argazkiak 30 X 40 cm-ko kartulina edo euskarri zurrunean jarriko dira (bertikalean zein horizontalean). Muntatze arrazoiak direla eta, neurriak ahalik eta zehatzenak izatea eskertuko genuke.

BIDALKETAK

Gutun-azal itxi batean bidali behar dira argazkiak, inolako kosturik gabe, KULTUR ETXERA: KULTUR ETXEA, San Juan Plaza, 1 - 48.800 - BALMASEDA (BIZKAIA), Telefono-zenbakia: 946.802.974.- Fax-zenbakia: 946.800.068.- Gutun-azalaren kanpoaldean datu hauek jarri behar dira: **I. Argazki-Lehiaketa. Balmasedako Erdi Aroko X. Azoka - 2008 eta "Bildumaren izena edo Goiburua"**. Gutun-azalaren barruan egilearen izena, helbidea, harremanetarako telefono-zenbakia, e-maila etab. jarriko dira bildumaren izenarekin edo goiburuarekin batera.

HARREMANETAN INTERNET BIDEZ

E-maila: cultura@balmaseda.net / klaretantzokia@balmaseda.net

LANAK AURKEZTEKO EPEA

2008ko maiatzaren 19tik ekainaren 19ra arte (biak barne).

EPAIMAHAIA

Argazkilari ezagunek eta lehiaketa antolatatu duen Udal Batzordeko kideek osatuko dute epaimahaia. **Epaia apelaezina izango da.**

EPAIA

2008ko uztailaren 1ean emango da epaia.

SARI BANAKETA

2008ko uztailaren 4an banatuko dira sariak, 19:30ean, Balmasedako Kultur Etxearen Batzar Aretoan (San Juan Plaza, 1). Egun horretan jarriko dira ikusgai, paper formatuan, lehiaketara aurkeztu diren argazki bildumak.

ERAKUSKETA

2008ko uztailaren 4tik 24ra bitartean, Balmasedako Kultur Etxearen Batzar Aretoan (San Juan Plaza,1).

OHARRAK

Aurkezturiko lanak antolatzaileen esku geratuko dira eta argitaratzeko eskubidea izango du, beti ere, lanaren eta egilearen izena aipatuta. Parte hartzaileek arduratu beharko dute hirugarren batek argazkiari dagozkion eskubideak ez eskatzeaz eta irudi-eskubideari buruzko erreklamazioez. **Lehiaketa honetan parte hartzeak oinarriak erabat onartzea dakar.**

SARIAK

Lehenengo Saria: 1.000 euro.

Bigarren Saria: 500 euro.

Hirugarren Saria: 300 euro.

